

**ELKARGOKIDE EGITEKO ORDUTEGIA: 09:00etatik 13:00etara.****Aurretiko hitzorduarekin: 943 44 01 18 telefono zenbakian (EAKN-ko ziurtagiria eskatzeko ezik).****OSO GARRANTZITSUA (Ez da Elkargokide izateko eskaerarik tramitatuko, agiri guztiak aurkezten ez badira).****ELKARGOKIDETU AURRETIKAKO BALDINTZA:**

Gainerako agiriak aurkeztu aurretik, interesduna ez dagoela zigortua jakinarazten duen **Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Ziurtagiria** eskatu behar da Elkargo honetako idazkaritzan.

**Eskaera orria** bete, **N.A.N.-ren fotokopia** atxikitu, lizentziatura amaitu izaneko data ageri den dagokion **Unibertsitateko Ziurtagiria** aurkeztu (Auzitegietan Abokatutzan eta Prokuradore lanetan aritzeko sarbideari buruzko 34/2006-ko urriaren 30eko legeari jarraituz) eta 183.70 €ko **diru-saria ordaindu behar da**

Elkargoak aipatu Ziurtagiria Madriliko Kontseilu Nagusiari eskatuko dio eta 10 eguneko epean jasoko du. Bidaltzen denetik 3 hilabetera iraugiten da ziurtagiria eta, beraz, epe hori pasa ostean elkargokide izaten jarraitu nahi bada, eskaria eta ordainketa berriro egin behar dira.

**AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

1. Dekano Jn.-ri zuzendutako eskabidea.
2. N.A.N.-ren fotokopia.
3. Elkargokide txartelerako argazkia (Nortasun Agirikoaren tamainakoa).
4. Jaiotza-ziurtagiria. Erregistro Zibilean eskatzen da.
5. Banku-datuak (24 digitu), hurrengo urtetako kuotak helbideratzeko.

**6. JARDUNEAN DIRENAK ELKARGOKIDE EGITEKO:**

a) Bere kontura:

- Mutualitatea edo Gizarte Segurantza: Abokatutzako Mutualitatean alta eman izanaren ziurtagiria (Elkargoko Idazkaritzan) edo Gizarte Segurantzako Autonomoen Erregimenean alta eman izanaren ziurtagiria (Hasieratik erregimen honetan sartzeko hautua egiten bada, erabakia atzeraezinezkoa da).
- Zergak: Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta eman izanaren Ziurtagiriaren fotokopia (840 inprimakia) eta errolda aitortpenean alta eman izanaren fotokopia (036 inprimakia).

b) Besteren kontura:

- Gizarte Segurantza: Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean elkargokidea alta emanda dagoela egiaztatzen duen dagokion enpresaren ziurtagiria.
- Esklusibitatea: elkargokidea Abokatu modura jarduera osoz kontratatua dagoela egiaztatzen duen dagokion enpresaren ziurtagiria.

**7. JARDUNEAN EZ DIRENAK ELKARGOKIDE EGITEKO.** Abokatutzaren Mutualitatea. Alta ematea borondatezkoa da. Alta eman nahi izanez gero Abokatuen Elkargoko Idazkaritzan

**ELKARGOAK ESKURA JARRIKO DITUEN BETE BEHARREKO AGIRIAK (aurreko agiriak aurkeztu ostean)**

- Dekano Jn.-ri zuzendutako eskabidea.
- Bateriaezintasun auzietan ez zaudenaren Zinpeko adierazpena.
- Laneko helbidearen eta helbide partikularren inprimakiak.
- Bankuko-helbideratzea egiteko inprimakia (IBAN 24 digitu).
- Hizkuntzen ezagupenari buruzko inprimakia. Euskararen ezagutza mailari buruzko galdetegia.
- Abokatuen Batzordean izena emateko orria. Euskara Batzordean izena emateko orria.
- Elkargoaren Webgunean sartzeko eskaera-orria.

**ELKARGOKIDEEN ORDAINKETA (elkargokide egiteko unean egingo da eskudirutan)**